

ENE ITSUGIDARI, ENE KAPITAIN

Testua: GONZALO MOURE

Ilustrazioak: MARIA GIRÓN

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 24,5 x 21,5 cm. 40 or. 15 €

[Ene Itsugidari, Ene Kapitain](#) (euskara)

ISBN 978-84-9172-187-1. Autore liburua. Irakurle autonomoak.

[MI Lazarilla, MI Capitán](#) (gaztelania)

ISBN 978-84-1343-031-7. Obras de autor. Lectores autónomos.

[Miña Guía, Meu Capitán](#) (galegoa)

ISBN 978-84-1343-030-0. MareMar.

[La meva Guia, el meu Capità](#) (katalana)

ISBN 978-84-16804-96-2. Obres d'autor. Lectura autònoma.

Eskolara bidean, aita eta biok argi-itzalen –eta soinuen– oihan batean barrena egiten dugu aurrera.

Pitzia-autoak asmatzera jolasten gara:

–Hori Panda bat da.

–Entzun! Kakalardo bat!

–Jaguar bat! Jaguar bat!

–Peugeoten lehoia entzun dudala uste dut...

Emozioa eta edertasuna, aita baten eta haren alabaren arteko maitasun sakona, eta ikusteko mugetatik harago ikusteko gaitasuna, horiek guztiak agertzen dira liburu honetan.

Izan ere, iluntasunean bititzeak edo ikus-eremu murriztua izateak ez dute zertan bitzta oso baten garapena oztopatu.

Eta, pertsonaia hauen kasuan bezala, eskolarainoko ibilbidea zinezko abentura bihurtzen da, non hiria oihan bihurtzen den, izaki basatiak eta soinu liluragarriak eta guzti, edo zebra bide bat ibai emaritsu baten gaineko zubi bilakatzen den.

«Ene Itsugidari, Ene Kapitain» liburuak neskatoaren eta haren aitaren arteko samurtasuna eta miresmena transmititzen du, elkarren beharra dutelako amets bezalako mundu habitagarriago eta ederrago batean segurtasunez ibiltzeko. Elkar zaintzeko beharraz gainera, neskatoaren pentsamenduak, zalantzak eta sentiberatasun berezia ere islatzen ditu.

Gonzalo Moure-ren testu eder honetan, elkarriketa eta narrazio introspektiboa txandakatzen dira hiri bateko agertokian, zein María Girón-ek pitzia basati, samur eta atseginez kolonizatzen duen, animaliok baitira protagonistaren irudimenean bizi diren bidelagun maitagarriak.



■ **Gala:** aita baten eta haren alabaren arteko harremana.

■ **Adin egokia:** 6 urtetik aurrera.

■ **Nabarmenekoak:** ikus-desgaitasuna, integrazioa, mugak gainditzea; emozioak; familia; zaintzak; irudimena.

■ **Liburuaren lagina:**

<https://issuu.com/kaladraka.com/docs/ene-itsugidari-ene-kapitain-eusk>

Gonzalo Moure

(Valentzia, 1951)

Kazetari eta idazlea. Haur eta gazte literaturaren arloko aitortza nagusiak jaso ditu: Cervantes Txikia Saria 2017, haren obra osoagatik; Gran Angular 2003, Ala Delta 2001, Barco de Vapor 1995, IBBYren Ohorezko Zerrenda 1993 eta 1991, The White Ravens... Haren obran engaiamendu soziala nabarmentzen da: saharar herria eta Bubisher bibliobusak, haurren eskubideak, berdintasuna, ingurumena... Literatura sortzearekin batera, ikastetxeak, bibliotekak eta irakurle-klubak bisitatu ditu, bere liburuei buruzko hitzaldiak emateko.

<http://www.gonzalomouretrenor.es>

María Girón

(Bartzelona, 1983)

Arte Ederretako ikasketak egin zituen Bartzelonako Unibertsitatean (UB); Boloniar eta Sevillan osatu zuen bere formazioa eta, Bartzelonan bueltan zela, ilustrazioan espezializatu zen Llotja Eskolan. Zenbait liburu ilustratu ditu, hainbat hizkuntzataraz itzuliak. 2010ean, Boloniako Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko Feriak hautatu zuen Gianni Rodariri buruzko erakusketa kolektibo batean parte hartzeko. Feria berean parte hartu zuen berri 2017an, katalan kulturari buruzko erakusketa batean.

<http://www.mariagiron.com>

